

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten sorkuntzan baliabide ezberdinak hartu behar dira kontuan, hala nola, baliabide fisikoak, giza baliabideak, finantza baliabideak edo baliabide intelektualak.

Baliabide fisikoak produktua fabrikatzeko edo saltzeko erabilitako instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak eta banaketa sareak dira. Gure kasuan, instalazio egokien beharra izango dugu, izan ere, gure diskoteka leku fisiko bat da. Horrez gain, gestio guztiak egiteko lekuren bat beharko dugu, hau da, bulego bat izango dugu dena antolatzeko, eta bertan, sistema informatikoak erabiliko ditugu.

Giza baliabideei dagokienez, sormena, ezagutza eta gaitasun komunikatiboak azpimarratu behar dira. Horiek, gure langileek izan beharko dituzten ezaugarriak dira, izan ere, gure diskoteka berritzen joateko beharrezkoak izango dira. Gauzak horrela, sormena erabiliko dugu egunero gure diskoteka berritzeko eta kontsumitzaileei eskaintza berritzaileak egiteko. Ezagutza ezinbesteko alderdia da, horregatik, gure langileek beharrezko kurtso eta titulu guztiak eskuratu beharko dituzte eta horrekin batera, etengabeko ikaskuntza eskainiko diegu. Bukatzeko, gaitasun komunikatiboa lantzea beharrezkoa izango da jendearekin etengabeko kontaktuan egongo garelako; beraz, hori lantzeko dinamika ezberdinak burutuko ditugu.

Finantza baliabideekin jarraituz, alderdi ezberdinak hartu beharko ditugu kontuan: eskudirua, kreditu lineak, soldaten ordainketak, bestelako erosketak eta negozioa zabaltzeko inbertsioak. Horiek denak oso garrantzitsuak izango dira gure enpresa sortzeko eta etorkizunean zabaltzeko. Horregatik, gure langile batek alderdi hau eramango du eta enpresaren egoera ekonomikoaz arduratuko da.

Bukatzeko, baliabide intelektualei dagokionez, markak, jabegoa, ezagutza, patenteak, egile-eskubideak, elkartek eta bezeroen datu baseak hartu beharko dira kontuan. Gure enpresa ezaguna izateko, marka bat sortuko dugu, baina beste diskoteka asko daudenez, ezingo dugu patentatu. Dena den, jendeak gure enpresaren inguruan hitz egiteko edo lan egiteko, egile eskubideak errespetatu beharko ditu, plagioa alde batera utziz. Azkenik, gure bezeroak babesteko beren datu pertsonalak kontu handiz erabiliko ditugu.

Baliabide horietaz gain, badaude funtsezko beste baliabide batzuk ere: externalizazioa, kostuak murriztea, hobetzeko aukera, iraunkortasuna eta ordezteko aukera.

Externalizazioa kanpo enpresa batengan funtsezko baliabide baten sorkuntza uztea izango litzateke. Adibidez, telefonia mugikorreko enpresek espezializatutako enpresen esku uzten dute telefonoen fabrikazioa.

Kostuak murriztea, enpresak dituen diru irteerak txikitzea da. Horretarako, merkatua hobeto segmentatu daiteke edo baliabideak hobeto kudeatu.

Hobetzeko aukerari dagokionez, produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasunaren inguruan ari gara hitz egiten. Horretarako, etengabeko berrikuntzak egin behar ditu enpresak, gorenean mantenduz.

Iraunkortasunak, enpresak bere funtsezko baliabideak ordezkatu eta jarduerarekin jarraitzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Hau da, enpresak gai izan behar du bere baliabideak aldatu eta lanean jarraitzeko, bestela iraungitze data izango luke enpresak.

Ordezteko aukera dagoenean, enpresaren funtsezko baliabideak benetan ez zirela funtsezkoak esan nahi da. Hau da, enpresak erabiltzen dituen baliabideak, ez lukete ordezkarriak izan behar.